

PROYECTO DE PRESUPUESTO PARA EL AÑO 2017

MEMORIA

El presente presupuesto que presenta la Junta de Gobierno para su aprobación por la Junta General comprende los medios económicos del Colegio destinados a la consecución de sus fines durante el **ejercicio de 2017** y se ha elaborado bajo los principios de prudencia contable, eficacia y contención del gasto, manteniendo los servicios colegiales con **una disminución de las cuotas colegiales** respecto al ejercicio anterior en **un 4%**, siendo éste **el noveno año** consecutivo en que se mantienen o se rebajan las mismas.

En esta ocasión se presenta por la Junta de Gobierno un presupuesto **inferior** al del año precedente, lo que supone una disminución de un **4,23 %** en cuanto a gastos e ingresos con respecto al 2016. Ello es debido principalmente a la desaparición de la modalidad CIA en la Escuela de Práctica Jurídica (dirigida a los Licenciados en Derecho que ya colegiados se iniciaban en la profesión) por falta de alumnos, y que no compensa el aumento de alumnos que realizan el Master de Acceso a la Abogacía, obligatorio para todos los graduados que quieran ejercer como abogados, y el incremento de actividad en la organización de cursos y talleres dentro de lo que se denomina formación continua. Igualmente se ha presupuestado un descenso del importe presupuestado en gastos generales por las actividades colegiales, ahora bien, sin reducir la actividad tal y como se describirá en esta memoria.

Con el fin de ofrecer de forma clara y sencilla pero a la vez completa para el colegiado, se establece el presupuesto en base a la contabilidad analítica que tiene establecida el Colegio, describiendo de forma exhaustiva los centros de costo y los conceptos a los que el Colegio destina sus fondos así como las vías de entrada de ingresos también desglosada por las mismas partidas. De esta forma el colegiado conoce de forma rápida cada una de las partidas y su repercusión real en los gastos e ingresos colegiales.

Junto al detalle de cada una de los centros se incluye igualmente lo presupuestado el año anterior, con el fin de poder analizar cada uno de los conceptos y ver la evolución que ha sufrido en su cuantía.

Las dos primeras columnas reflejan el sumatorio de todos los centros de gasto, comisiones o grupos de estudio del Colegio; la primera incluye todas las que son el proyecto del presupuesto para el año 2017 y la segunda es la suma de los centros del presupuesto del año anterior.

A pesar del desglose exhaustivo que se realiza en el cuadro presupuestario recogiendo todos los centros de gasto o de ingreso, en esta breve memoria se comentan algunos aspectos que se quieren destacar por su relevancia, sin perjuicio de la amplia información y explicaciones que se ofrecerán por parte del Tesorero del Colegio en la **Junta General** que tendrá lugar el próximo día **22 de diciembre, jueves, a las 13,00 horas**, en el Salón de Actos del Colegio, calle Rampas de Uribitarte 3 de Bilbao.

De forma más pormenorizada quisiéramos destacar las siguientes partidas o centros de costo que destacan por su relevancia colegial o su importe económico:

Servicios Generales:

En este concepto se engloban todos aquellos gastos e ingresos de estructura o funcionamiento ordinario del Colegio que no pueden ser atribuidos a otro centro de coste concreto de la analítica, por ello se trata de la partida o departamento de cuantía más elevada.

GASTOS:

Se incluyen, entre otros, los gastos derivados de la gestión ordinaria del Colegio y sus servicios administrativos, del mantenimiento y conservación del edificio, los gastos generados por el funcionamiento de las oficinas centrales así como los ocasionados en las diversas sedes ubicadas en los Palacios de Justicia de toda la provincia, los de la biblioteca colegial, gastos de luz, gas, telefónicos y de conexión entre las sedes, sistema inalámbrico de acceso a Internet Wi-Fi o los derivados del mantenimiento de nuestra página web o del sistema informático general, los que provienen de las juras de nuevos colegiados ó los gastos e ingresos derivados del mantenimiento de las fotocopiadoras e impresoras del Colegio, así como los derivados del personal y de los profesionales que se contratan etc.; todos ellos generados por el funcionamiento ordinario de los diferentes servicios del Colegio.

Se trata del centro de gasto e ingreso más importante del Colegio dado que engloba la mayor parte de los servicios colegiales y se ha procurado ajustar al máximo este apartado adecuándonos a los previsibles ingresos que vayamos a disponer, sin que ello afecte a los servicios que habitualmente ofrece nuestra Institución a los colegiados ,y a la sociedad en general. Este año ha sufrido una **disminución del 5,03 %** respecto a lo presupuestado el año anterior.

A continuación incluimos una breve explicación de aquellos gastos que dentro de servicios generales merecen, a nuestro entender, una mención especial dada su relevancia:

- Biblioteca:

Se mantiene la partida destinada a la Biblioteca con un elevado importe, *105.000 €*, debido a la gran importancia que para el Colegio tiene el ofrecimiento de este servicio y que el mismo sea de la máxima calidad, poniendo a disposición de los colegiados un gran número de herramientas, tanto en papel como en soporte informático, que editan las empresas del sector. Ello se refleja en la amplia utilización que de ella hacen nuestros compañeros/as, convirtiéndose por ello en uno de nuestros principales servicios por lo que entendemos no deben escatimarse recursos en su actualización, mejora y mantenimiento.

En este apartado también se incluyen los mantenimientos de las bases de datos que el Colegio dispone en las sedes judiciales de los municipios de Barakaldo, Getxo, Durango y Gernika, así como en las oficinas de los Palacios de Justicia de Barroeta Aldamar y de Buenos Aires de Bilbao.

- Reparaciones y conservación:

Partida dotada en el apartado de servicios generales con *155.000 €*, frente a los 185.000 con los que fue dotada el pasado ejercicio, se trata de uno de los apartados que absorbe parte del porcentaje de la rebaja total de los gastos del presupuesto. En esta cuenta se contabilizan los gastos derivados principalmente del funcionamiento ordinario de la sede colegial, tales como limpieza, medidas de seguridad, alarmas, incendio, reparaciones ordinarias, mantenimiento de maquinarias, ascensores, etc. El haber realizado los últimos ejercicios unas importantes obras de reparación y conservación de la sede colegial, nos permite este año contemplar una rebaja de esta partida.

- Servicio de Profesionales Independientes:

Partida dotada en el apartado de servicios generales con *197.000 €*, cuantía similar a la del pasado año. En este apartado se incluye la contratación de profesionales que colaboran con el Colegio en ofrecer servicios a los colegiados o los que se proporcionan al ciudadano, para lo que se cuenta con compañeros y compañeras en labores internas, tales como la elaboración de los expedientes de minutas, servicio de honorarios o tramitación de los informes de responsabilidad civil. También se incluyen los gastos ocasionados por la auditoría de las cuentas colegiales y la actualización del sistema informático de gestión colegial, que entre otras cosas mejorará la posibilidad de comunicación con los colegiados en diversos aspectos.

- Publicidad:

Dentro de Servicios Generales se incluye una partida de *50.000 €* para continuar con la publicidad institucional de la abogacía, cantidad algo superior a la del año anterior. Con estas campañas se pretende mejorar la imagen de la abogacía ante la sociedad y muy especialmente ante sectores de posibles nuevos clientes (pequeños empresarios, autónomos, comerciantes, trabajadores, etc.) que no están habituados a ser usuarios de los servicios de un abogado/a, o incluso dar publicidad a una nueva actividad que se establezca por el Colegio, sirviéndonos para ello de los medios de comunicación e instrumentos que se estimen convenientes, para lo que es necesario incluir en el presupuesto una cantidad relevante con este destino.

Como puede verse por el importe, no se trata de una cantidad que nos permita realizar una campaña permanente ni realizar un gran desembarco en los medios de comunicación, pero sí seguir estando presentes en aquellos que puedan ofrecer un resultado satisfactorio para nuestros fines.

Este año está previsto aprovechar, al igual que los dos últimos años, una propuesta de publicidad semanal en el medio de comunicación de mayor tirada en

nuestra provincia, que se encuentra al alcance de nuestras posibilidades y encaja en nuestro presupuesto.

- Fondo de Solidaridad:

La partida que se denominaba Obra Social, cambió su nombre por el de *Fondo de Solidaridad*, proponiendo a la Junta General que la cuantía presupuestada a tal fin para el ejercicio 2017 sea de 6.000 €, cantidad muy inferior a la de ejercicios anteriores, pero que nos permite cumplir los compromisos que el Colegio adquiere con el mantenimiento de esta ayuda a quienes fueron nuestros compañeros y se encuentran en estado de necesidad o a sus familiares, y que se adapta a las actuales necesidades de aquellos a los que se les han concedido las ayudas.

Las cantidades contabilizadas durante los últimos años nos han permitido crear un fondo a tal fin al que en estos momentos podemos recurrir, sin que se pongan en riesgo las prestaciones a las que podamos comprometernos para los próximos años.

Después de haberse aprobado por la Junta de Gobierno en el año 2007 el reglamento que establece su forma de reparto y funcionamiento. Os recordamos que el reglamento que regula su aplicación y sistema de reparto lo puedes consultar en nuestra página web: www.icasv-bilbao.com.

- Personal:

Son siempre las cuentas más relevantes de nuestro presupuesto y ascienden a un total de 572.550 € en el apartado de Servicios Generales, incluyendo los sueldos y salarios de las actividades que no se pueden imputar directamente a otra actividad o centro de coste, además de la cuota empresarial a la Seguridad Social así como otro tipo de cargas sociales. Esta cantidad supone el 37,96 % de los gastos previstos para gastos generales del Colegio, porcentaje similar al de años anteriores.

En el total de gastos colegiales el correspondiente a personal asciende a 1.218.000 €, que supone el 37,01 %. En esta cantidad se incluiría lo que el Colegio destina a este concepto además de en los servicios generales, en la Escuela de Práctica Jurídica, en los servicios de Turno de Oficio y Servicio de Orientación Jurídica así como en la Corte de Arbitraje.

- Amortizaciones:

Con el fin de salvaguardar contablemente las inversiones realizadas los años anteriores en inmuebles, mobiliario, equipos y programación informáticas, se destina dentro de los gastos ordinarios, la cantidad correspondiente según los criterios contables establecidos. El Colegio amortiza sistemáticamente su inmovilizado material para uso propio siguiendo el método lineal, distribuyendo el coste de los activos entre los años de vida útil estimada.

A efectos de la analítica de costes que tiene establecida el Colegio, estas imputaciones se realizan proporcionalmente al uso que se dan a las diversas instalaciones colegiales, distribuyéndose el mismo entre los servicios generales, la Escuela de Práctica Jurídica y el Turno de Oficio. A tal fin este año se estima que las cantidades imputadas por dichos conceptos en todos los centros de coste ascenderán a 208.780 €.

INGRESOS:

Se imputan a Servicios Generales la mayor parte de los ingresos colegiales salvo que conlleven un destino concreto en el sistema analítico establecido por el Colegio.

- Cuotas periódicas:

Se trata, dentro de los ingresos colegiales, de la partida más relevante y como ya se ha indicado al comienzo de esta memoria, **se han reducido** con respecto al año anterior, siendo de esta forma **el noveno año** consecutivo en que o no suben o se rebajan las mismas.

Se ha presupuestado una reducción del **4 %** para todos los colegiados.

La cantidad por este concepto asciende a *1.561.070 €*, es decir, un **4,55 %** menos que en el ejercicio anterior en el que se presupuestaron *1.635.400 €*.

Las cuotas individualizadas por colegiado contemplan el **escalonamiento** aprobado hace ya dieciseis años por la Junta General, con **reducciones del 50 y 25%** para los ejercientes residentes con un tiempo de colegiación inferior a 2 o 5 años respectivamente.

Las **cuotas colegiales anuales** previstas para el **año 2017** quedan establecidas de la siguiente forma:

Ejercientes residentes

- Más de 5 años de colegiación: 384,00 Euros
- De 2 a 5 años de colegiación: 288,00 Euros
- Menos de 2 años de colegiación.: 192,00 Euros
- Más de 50 años de colegiación: Sin cuota

Ejercientes no residentes

- Cuota anual: 192,00 Euros
- Más de 50 años de colegiación: Sin cuota

No Ejercientes

- Cuota anual: 192,00 Euros
- Más de 40 años de colegiación: Sin cuota

El **cobro** de las cuotas seguirá siendo **trimestral**, devengándose el **primer día del período**, teniéndose en cuenta para el establecimiento de la cuota a aplicar, la situación en la que en ese momento se encuentre el colegiado respecto a su antigüedad, residencia o si es ejerciente o no ejerciente.

- Cuotas de Incorporación:

Se ha presupuestado un ingreso por cuotas de incorporación de 56.200 €, en previsión de que se incorporen 110 nuevos colegiados, abonando cada uno de ellos la cantidad de 500 €, importe considerado el necesario para el abono de los gastos que ocasiona su tramitación colegial.

Igualmente se ha presupuestado la reincorporación de 6 colegiados, estableciéndose para ellos una cuota por volver a pertenecer al Colegio, de 200 €. La misma que para aquellos que, dados de alta en los colegios de Alava o Gipuzkoa, se den de alta en el nuestro, según acuerdo del Consejo Vasco de la Abogacía.

Escuela de Práctica Jurídica:

GASTOS:

Nuestra Escuela de Práctica Jurídica "Pedro Ibarreche" ha adquirido una importante relevancia económica respecto del total de gastos e ingresos del Colegio y hemos de señalar que su actividad no se ciñe exclusivamente al alumnado de práctica jurídica, sino que se extiende a lo que hoy llamamos **Formación Continua**, por dedicarse también a la organización de jornadas y cursos de reciclaje, así como al apoyo que ofrece a las diversas comisiones colegiales en la organización de sus jornadas; actividad muy valorada por el conjunto de colegiados y que se refleja en el gran número de personas que a lo largo del año se inscriben en alguna o algunas de las múltiples actividades que se organizan.

Se ha confeccionado para este ejercicio un presupuesto de gastos ligeramente inferior al del ejercicio anterior, 680.580 €. El aumento de la actividad como consecuencia de la entrada en vigor de la Ley de Acceso y a la obligatoriedad de la realización de la Escuela a los futuros colegiados, supuso un incremento importante en el número de los alumnos, que no ha compensado sin embargo este año, la desaparición del Curso de Iniciación a la Abogacía (CIA), que se ha venido organizando los últimos años, al haber desaparecido los Licenciados en Derecho que deseaban realizarlo.

Durante este ejercicio seguiremos con una intensa actividad de nuestra Escuela de Práctica Jurídica "Pedro Ibarreche", por un lado en la estrecha colaboración con la Universidad de Deusto con quien compartimos Master de Acceso a la Abogacía, por otra con la Universidad del País Vasco, con quien colaboramos principalmente en la organización de las prácticas de los alumnos de su Master de Acceso y en tercer lugar con la organización constante de cursos y talleres dirigidos principalmente a nuestros colegiados.

Este año se contempla el gasto que supondrá la contratación de un nuevo tutor, cuya convocatoria se ha circulado a todos los colegiados, que colabore en las labores de control y organización de la Escuela, principalmente impulsando la organización de jornadas y cursos sobre materias de interés para los colegiados.

Igualmente se ha incluido una partida para la celebración del 30 aniversario de la creación de nuestra Escuela.

Todo ello ha provocado que el presupuesto que debemos destinar a tanta actividad deba tener su reflejo en los gastos, si bien igualmente en los ingresos tal y como podemos comprobar a continuación.

INGRESOS:

Se han considerado que los ingresos que vamos a obtener de la actividad ascenderán este ejercicio a 875.000 €, tanto por los alumnos matriculados en el Master de Acceso así como por los asistentes, letrados principalmente, a los diferentes cursos y jornadas que se organicen a lo largo del año.

Turno de Oficio y Asistencia:

GASTOS:

No podemos dejar de mencionar todos los años este apartado que refleja los ingresos y gastos de esta importante labor que se encuentra en manos de la Abogacía y absorbe gran parte del tiempo de muchos de nuestros trabajadores así como de los importantes medios materiales que el Colegio dedica a la misma.

Tal y como se realiza habitualmente, se incluye una cantidad relevante, 622.300 €, como reflejo de los gastos que al Colegio le suponen el mantenimiento de la infraestructura de la Asistencia Jurídica Gratuita y el Turno de Oficio.

En esta partida se incluyen los gastos que ocasionan al Colegio el funcionamiento de todos los Turnos de Oficio, de las diversas modalidades de la Asistencia al Detenido y también los que se derivan por el funcionamiento de la oficina del Servicio de Orientación Jurídica. Igualmente se incluyen los de infraestructura del servicio de Asistencia a Víctimas de Violencia de Género que supone un gasto adicional importante y que también se financia con la consiguiente subvención del Gobierno Vasco, y por último los gastos derivados del Servicio Especial de Extranjería (SAJE) que tiene igualmente su contrapartida a través de una subvención concreta del Gobierno Vasco.

INGRESOS:

Como puede comprobarse en este ejercicio no se ha podido presupuestar, como tampoco en los últimos ejercicios, un saldo cero de esta partida ya que según las previsiones de ingreso por subvenciones que realizamos en base al nuevo Decreto de Justicia Gratuita, no se cubren totalmente los gastos que consideramos necesarios para el mantenimiento de dichos servicios. Se ha calculado que el ingreso derivado de subvenciones para cubrir el gasto ascenderá a los 579.500 € incluidos en el presupuesto. A pesar de ello desde el Colegio seguiremos reclamando del Gobierno Vasco la necesidad de que, para este mismo ejercicio económico, se cubra con un incremento de la subvención los gastos íntegros que dicha actividad generan en el Colegio, de forma que esta actividad no sea deficitaria.

Comisión de Cultura:

Quisiéramos destacar la consolidación de la actividad de esta comisión, que con una dotación presupuestaria relativamente austera, 17.900 € para el ejercicio, sigue dinamizando el Colegio con actividades culturales dirigidas no solo a los colegiados sino al público en general, abriendo a la sociedad vizcaína nuestras instalaciones y nuestro colectivo. Son muchas y muy variadas las actividades de las que a lo largo del año podemos disfrutar, conciertos, actuaciones, exposiciones, etc., todas ellas de gran calidad y muy valoradas por los asistentes. Igualmente participa de forma muy activa a través del apartado cultural que se publica en todos los números de nuestra Revista.

Boletín Informativo:

Se sigue denominando de esta forma la revista colegial de la que se hacen 10 números anuales que se reparten tanto en todos los despachos de los colegiados como a aquellos organismos y entidades relacionados con el mundo jurídico. Se ha presupuestado un gasto algo superior al del ejercicio precedente, 150.040 €.

En los últimos años ha disminuido de forma importante la cantidad ingresada por publicidad, al haber provocado la crisis económica que sea muy complicada la obtención de financiación a través de anuncios. Se han presupuestado unos ingresos de 60.000 € por dicho concepto.

FBE - UIA:

Se ha considerado adecuado hacer desaparecer este centro de gasto e integrar las cantidades presupuestadas por este concepto dentro de la Comisión de Relaciones Internacionales, al tratarse de gastos colegiales dirigidos a éste ámbito.

Publicaciones:

Seguimos comprobado la gran aceptación que entre nuestro colectivo tiene la publicación y consiguiente reparto gratuito de obras jurídicas o códigos sobre materias de común interés para la gran mayoría, obtenidas por parte del Colegio a un precio muy reducido. Por este motivo por la Junta de Gobierno se ha considerado adecuado seguir dotando de manera elevada esta partida para el próximo año y destinar *40.000 €* para la compra o edición de nuevas obras.

Acciones Corporativas

Se incluyen en esta partida, con un importe total presupuestado de *78.200 €*, la celebración de ciertos actos organizados por el Colegio, principalmente los referentes a la comida anual, la que se organiza anualmente para homenajear a quienes lleven más de 40 años colegiados, así como las esquelas y misa anual por los compañeros/as fallecidos.

También se incluye, en servicios varios, la aportación que desde el Colegio se realiza a diversas organizaciones relacionadas con la abogacía o que desde la Junta de Gobierno se considera adecuado debemos participar.

Como ingresos de esta partida se presupuestan las cantidades que se cobrarán a los asistentes al banquete anual y que se estiman en *17.000 €*.

Corte de Arbitraje:

Hace ya unos años que se establece como actividad independiente de los servicios generales, de forma que se imputan a la misma los gastos e ingresos que se derivan directamente de su actividad.

Para este ejercicio se ha considerado necesario para su desarrollo un presupuesto de *43.250 €*, si bien se presupuesta la misma cantidad como ingreso que el Colegio reciba de las partes litigantes que se sometan a la Corte.

Cooperación Internacional:

En esta partida se incluye la cantidad destinada por el Colegio a financiar proyectos del Tercer Mundo o de cooperación al desarrollo, a través de la Comisión de Cooperación Internacional del Colegio, conforme al 1% establecido y asumido por nuestra Junta General, con un importe para este año de *32.500 €*.

Esta partida se ha visto también disminuida, al igual que el presupuesto colegial.

Grupos de Estudio:

Se contemplan en el presupuesto las cantidades que destinamos a los gastos en que incurran los diferentes grupos de estudio que actualmente existen en el Colegio, y cuyas actividades siguen dinamizando el mismo y ofreciendo a todo aquel colegiado que lo desee la posibilidad de participación en sus muchas vertientes. Estos son: Dº de Familia, Dº Foral, Nuevas Tecnologías, Mediación, Medio Ambiente, Dº de Consumo, Dº Laboral, Dº del Mayor, de Propiedad Intelectual, Derecho Colaborativo y el nuevo de Derecho Animal que se ha creado recientemente.

Se incluye junto a esta memoria un cuadro explicativo con todas las cuotas que cobrará el Colegio a lo largo del año con especificación de todas las circunstancias posibles, en función de la situación de cada colegiado.

La cuantía total del Presupuesto experimenta, por los motivos antes señalados, una disminución **del 4,23 %** respecto al del año anterior.

Recibos Trimestrales

Recordamos que los recibos trimestrales del Colegio incluyen, además de los importes de las cuotas señaladas anteriormente, otros conceptos que no forman parte del presupuesto del Colegio pero que sin embargo debemos gestionar, estas son:

- **Cuotas del Consejo General de la Abogacía** (que mantienen sus cuotas respecto a 2016)

- Ejercientes y No Ejercientes residentes y colegiados sin ningún colegio de residencia: 39,13 €

- **Cuotas del Consejo Vasco** (con disminución de importes respecto a años anteriores exclusivamente para residentes):

- Ejercientes Residentes: 26,00 €

- No Ejercientes Residentes: 14,30 €

Sin embargo, nuestro Colegio este año ha decidido no cargar dichas cantidades a los colegiados al haber recibido una cantidad del propio consejo Vasco proveniente de los superávits existentes que se han ido generando durante los últimos años de funcionamiento.

- **Seguro de Responsabilidad Civil y Accidentes** contratado por el Colegio para todos los ejercientes residentes exclusivamente, manteniendo el importe del año anterior en 218,17 €. Se reparte entre los recibos del segundo y cuarto trimestres. Recordar que

el seguro de Responsabilidad Civil tiene una cobertura por siniestro de 600.000 €, con una franquicia de 600 €. Existe la posibilidad de ampliar coberturas de forma individual, y en estos casos desaparece la franquicia señalada.

- **El Seguro de IPT** (Prestación por Incapacidad Profesional Transitoria) de contratación voluntaria para los ejercientes residentes, queda establecida en *156 €* para el 2017, y que se gira por mitades junto con el 1er y tercer trimestres. Esta póliza si ha incrementado su precio respecto al pasado año, derivado de la tendencia del mercado así como de la siniestralidad existente.

Agradecemos vuestra colaboración y esperamos contar con vuestra presencia en la Junta General que se convoca para la aprobación de este Presupuesto.

Bilbao a 9 de diciembre de 2016

LA JUNTA DE GOBIERNO

2017. URTEKO AURREKONTUAREN PROIEKTUA

MEMORIA

Gobernu Batzordeak aurkezten duen aurrekontu honetan Abokatuen Bazkunak **2017ko ekitaldian** erdietsi nahi dituen xedeetara bideratutako baliabide ekonomikoak jaso dira. Beti bezala, proposamen honen onarpena Batzar Nagusiari dagokio. Aurrekontua egiteko, kontabilitateko printzipio hauek kontuan hartu dira: zuhertasuna, eraginkortasuna eta gastuari eustea. Bazkunak eskaintzen dituen zerbitzuak berdin-berdin mantenduko dira; **Bazkuneko kuotak, berriz, %4 txikituko dira.** Horrenbestez, kuotek **–bederatzigarren urtez–** handitu gabe edo txikituta jarraituko dute.

Beraz, badago desberdintasun bat aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, izan ere, Gobernu Batzak aurkeztutako aurrekontu hau aurrekoa baino **txikiagoa** da. Zehatz esanda, gastuak eta sarrerak **% 4,23** handitu dira, 2016eko aurrekontuarekin konparatuta. Handitze horren arrazoi nagusiak hauek dira: batetik, Praktika Juridikoko Eskolari dagokionez, abokatutzaren hastapenei buruzko ikastaroa (CIA) desagertu da, izan ere, ikastaro horretako ikasleak, zuzenbideko lizentziadunak, desagertu dira eta Abokatutzan Sartzeko Masterraren ikasleak (abokatutzan aritzea nahi duenak egin beharreko ikastaroa) ez dute orekatzen galera hori; bestetik, Eskolaren lana handitu da, etengabeko lanbide-prestakuntza handitu delako. Halaber, gastu orokorrei dagozkien zenbatekoak era txikitu dira, baina jarduna gutxitu gabe, txosten honetan irakurriko duzun moduan.

Ohi bezala, elkargoak duen kontabilitate analitikoa erabili da eta horrela elkargokideek argi eta garbi azter dezakete aurrekontua; hori dela eta, batetik, kostu edo gastu guneak eta kontzeptuak zehatz azaltzen dira, eta, bestetik, diru sarrerak. Horrenbestez, elkargokideok erraz eta arin dakuskigu datu guztiak.

Halaber, partida bakoitzaren alboan, aurreko urteko aurrekontuko datua ipini da, kontzeptu guztiak aztertu eta horien garapena ikusi ahal izateko.

Lehenengo bi zutabeetan, ondoko zutabe guztien batuketa agertzen da, gastu guneak kontuan hartuta; lehenengo zutabea 2017ko aurrekontuaren proiektuari dagokio eta bigarrena, iazko aurrekontuari.

Txostenean, aurrekontuaren partida guztiak banan-banan jaso dira gastu-zentro bakoitzaren arabera, eta nabarmentzeko modukoak diren zenbait alderdi jarraian aipatuko dira. Hala ere, Bazkuneko diruzainak informazio eta azalpen zehatzak eskainiko ditu datorren **abenduaren 22an, osteguna, 13,00etan**, Bazkuneko Ekitaldi Aretoan (Uribitarteko Arrapalak, 3, Bilbo) egingo den **Batzar Nagusian**.

Aurrekontuko partida edo gastu gune batzuk zehatzago aipatu nahi ditugu, kontzeptuaren aldetik edo kopuruaren aldetik garrantzitsuak direlako:

Zerbitzu orokorrak:

Kontzeptu honetan gure elkargoaren egiturari eta ohiko funtzionamenduari dagozkion gastu eta sarrera guztiak bildu dira, hau da, jarduera zehatz bati ez dagozkionak. Hori dela eta, kopururik handiena duen partida da.

GASTUAK:

Atal honetan Bazkunaren kudeaketa arruntaren gastuak, eraikinaren mantentzeari eta kontserbazioari dagozkion gastuak, elkargoko bulegoek eta administrazioak sortutakoak, baita Justizia Jauregietan ditugun egoitzetan sortutako gastuak, liburutegiarenak, telefonoak eta egoitzen arteko lotura mantentzeak sortutakoak, Wi-Fi edota web orrialdea mantentzearenak, informatika gastuak, elkargokide berrien zin-egiteak eragindakoak edo elkargoaren fotokopiagailuak eta inprimagailuak egoitza guztietan mantentzeak eragindako gastuak, etab.; baita enpleguak ordaintzeko eta profesionalak kontratatzeko orduan sortzen diren gastuak; horiek guztiak ez daude jarduera zehatz bati lotuta: elkargoko zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindakoak dira.

Aurretik esan dugun moduan, kopururik handiena duen gastu eta sarrera gunea da, izan ere, Bazkunaren zerbitzu gehienak hemen jasotzen dira. Atal hau asko zaindu dugu, aurreikusitako diru-sarrerak aintzat hartuta. Aldi berean, Bazkunak kideei eta gizarte osoari eskaintako zerbitzu horien kalitatea ez da gutxituko. Aurten % **5,3 txikitu** da, iazko aurrekontuarekin konparatuta.

Ondoren, zerbitzu orokorren barruan aipamen berezia merezi duten gastuen azalpen laburra gehitu dugu, gure ustez oso garrantzitsuak dira eta:

- Liburutegia:

Bazkunaren Liburutegiari dagokion partida gastu garrantzitsua da, eta kopuru handia eskaini zaio, *105.000 €*, kalitatezko zerbitzua eskaintzeak garrantzi handia duelako, argitaletxeek argitaratzen dituzten erreminta guztiak, paperean zein euskarri informatikoan, elkargokide guztien eskura jartzen baititu. Horregatik liburutegia asko erabiltzen da, elkargokide askok egunero erabiltzen dute eta, beraz, zerbitzu nagusietakoa da. Hori dela eta, Liburutegia eguneratu eta mantentzeko bitarteko nahiko erabili behar ditugu.

Atal honetan sartuta daude baita ere datu-baseak. Legeriaren eta jurisprudentziaren Internet bidezko datu-baseen sistemak mantendu behar dira Barakaldon, Getxon, Durangon eta Gernikan, baita Bilboko Barroeta Aldamar eta Buenos Aires kaleetan dauden Justizia Jauregietako bulegoetan ere.

- Konponketak eta kontserbazioa:

Zerbitzu orokorren atalean, partida honi *155.000 €* dagozkio. Iaz (*185.000 €*) baino diru gutxiago; hori dela eta, atal honen zenbatekoa ere nabarmen

txikitu da. Bazkunaren egoitza mantentzetik nahitaez eratorritako gastu guztiak jaso dira, beti bezala: lokalen garbiketa, zainketa- eta detekzio-sistemak, konponketa arruntak, igogailuen eta makinaren mantentze lanak, etab. Azken urteetan lan handiak egin direnez (Bazkuneko eraikinaren konponketa eta mantentze lanak), aurten diru gutxiago sartu ahal izan dugu atal horretan.

- Profesional Independenteen Zerbitzua:

Zerbitzu orokorren atalean, partida honi 197.000 € dagozkie. Iazkoaren antzerakoa, beraz. Atal honetan, elkargokideei edo herritarrei zerbitzuak eskaintzeko Bazkunarekin lankidetzan aritzen diren profesionalen kontratazioa jaso da. Horretarako, elkargokide batzuek barruko eginkizunak egiten dituzte, besteak beste, minuta-espeditak, ordainsari-zerbitzuak, erantzukizun zibileko txostenen izapidetza eta kontu-auditoriak. Era berean, elkargoaren kudeaketarako sistema informatiko berria ekitaldi honetan erabat gorpuztuko da. Horri esker, besteak beste, elkargokideekin komunikazioa hobetuko da. Gainera, kontuan hartu behar da Bazkunean gero eta espeditak gehiago kudeatzen direla. Hori dela eta, aurten atal horretara diru kopuru gehiago bideratu dugu.

- Publizitatea:

Publizitateari dagokion partidaren barruan, 50.000 €-ko gastua ezarri da –hau da, iaz baino gehiago– erakundearen publizitatea egiten jarraitzeko, abokatutzak gizartean duen irudia hobetzeko, batez ere, gure zerbitzu profesionalak erabiltzera ohituta ez dauden bezero berrien sektoreei begira (enpresaburu txikiak, autonomoak, merkatariak, langileak, etab.). Horretarako, komunikabideak eta egokitzen jotzen diren gainerako tresnak erabiliko dira eta, beraz, aurrekontuan xede horretarako kopuru handi bat sartu behar da.

Diru hori, jakina, ez da nahikoa gure publizitatea etengabe eta hedabide guztietan egiteko. Baina kopuru horri esker aurreko urteetan guretzat onuragarri izan diren hedabideetan agertuko gara.

Aurten, iaz bezala, hedabide batek luzatutako proposamenari ekingo diogu: astero publizitatea egingo da Bizkaian salmenta handia duen hedabide batean; proposamena egokia izan da, diru aldetik eutsi ahal izango diogu eta.

- Elkartasun Funtsa:

Aurreko urteetako Gizarte Ekintzari *Elkartasun Funtse* esaten zaio orain. 2016ko ekitaldiko aurrekontuan 6.000 €-ko kopurua aurreikusi dugu horretarako; beraz, kopurua nabarmen gutxitu da. Dena den, diru horrekin Bazkunak gure kide eta horien familiako behartuenei lagunduko die, hartutako konpromisoen arabera.

Azken urteotan jasotako kopuruak direla eta, funts bat eratu dugu; horrenbestez, hurrengo urteetan eman beharreko laguntzak bermatuta daude.

Gobernu Batzordeak 2007. urtean banatzeko eta funtzionatzeko modu berria ezartzen duen arautegia onetsi ondoren, aipatu dugun dirutza ezarri da elkartasun funtserako 2016. urteko aurrekontuetan. Arautegia kontsultatzeko, gure web-orrialdera jo: www.icasv-bilbao.com.

- Langileak:

Beti bezala, gure aurrekontuaren partidarik garrantzitsuenak dira, gaur egun, 572.550 € guztira, hurrengo hauek barruan hartuta: Bazkunaren gastu-gune eta jarduera desberdinetara esleitzea ezinezkoak diren soldatak eta alokairuak; horrez gain, Gizarte Segurantzarekin dauden kasuan kasuko betebeharrak eta beste zama batzuk sartuta daude. Kopuru hori ekitaldirako aurreikusitako gastuen aurrekontu osoaren % 37,96 da. Iazkoaren antzekoa, beraz.

Langileen gastua Bazkuneko gastu guztien % 34,85 da, hau da, 1.197.600 €. Bertan, zerbitzu orokorretako gastuez gain, Praktika Juridikorako Eskolako, Txandako Ofizioaren eta Laguntza Juridikoaren zerbitzuetako eta Arbitraje Auzitegiko gastuak sartuta daude.

- Amortizazioak:

Aurreko urteetan higiezinetan, altzarietan, ekipoetan eta programazio informatikoan egindako inbertsioak kontabilitateari dagokionez babesteko, gastu arrunten barruan dagokion kopurua bideratzen da, ezarritako kontabilitate-irizpideen arabera. Bazkunak modu sistematikoan amortizatzen du bere ibilgetu materiala metodo linealari jarraituz, aktiboen kostua gutxi gorabehera kalkulaturako bizitza erabilgarriaren urteen artean banatuz.

Bazkunak ezarrita duen kostuen analitikaren ondoretarako, ezarpen horiek modu proportzionalan egiten dira Bazkunaren instalazioei ematen zaien erabilera kontuan hartuta. Gastua banatzen da zerbitzu orokorren, praktika juridikoko eskolaren eta ofizioko txandaren artean. Xede horretarako, kalkuluen arabera, kontzeptu horiengatik kostu-zentro guztietan ezarritako kopurua 208.780 € izango da guztira.

SARRERAK:

Sarrera gehienak Zerbitzu orokorretan sartzen dira, Bazkunak ezarritako sistema analitikoan xede zehatz batera ez badoaz.

- Aldizkako kuotak:

Bazkunaren sarreren barruan, partidarik garrantzitsuena, beti bezala, kideok ordaintzen ditugun aldizkako kuotak dira. Txosten honen hasieran esan dugun moduan, Bazkuneko kuotak **txikituko dira**. Horrenbestez, kuotek **–bederatzigarren urtez–** handitu gabe edo txikituta jarraituko dute.

Txikitze hori Bazkuneko kide guztiek izango dute (% 4).

Aurrekontuetan kontzeptu horretarako ezarritako kopuruak *-1.561.070 €*- behera (% 4,55) egin du; iazko datua: *1.635.400 €*.

Kuotak duela hamasei urte Batzar Nagusiak onetsitako **mailakatzearen** arabera antolatuta daude, hau da, 2 edo 5 urte baino aldi laburragoan sartu diren bertako jarduneko elkargokide egoiliarrei, hurrenez hurren, **% 50 eta % 25eko murrizketak** eginda.

2017. urtean, Bazkunaren urteko kuotak hauek izango dira:

Jarduneko kide egoiliarrak

- 5 urte baino gehiago elkargoan: 384,00 euro
- 2 urtetik 5 urtera elkargoan: 288,00 euro
- 2 urte baino gutxiago elkargoan: 192,00 euro
- 50 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

Jarduneko kide ez egoiliarrak

- Urteko kuota: 192,00 euro
- 50 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

Jardunean ez daudenak

- Urteko kuota: 192,00 euro
- 40 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

Kuotak **hiru hilerik behin kobratzen** jarraituko dugu, **aldiaren lehen egunean**. Zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko dira elkargokidearen une horretako egoera, egoitza eta elkargoan daraman denbora.

- Sartze kuotak:

Aurtengo ekitaldiko aurrekontuan sarrera moduan 56.200 € aurreikusi ditugu, izan ere, gure aurreikuspenen arabera datorren urtean 110 alta berri izango ditugu eta bakoitzak 500 € ordaindu beharko ditu (elkargokide berri bakoitzaren izapidetzak sortzen dituen gastuei aurre egiteko behar den diru kopurua).

Halaber, 6 elkargokide ohi berriz ere kidegora sartuko dira; horiek 200 € ordaindu beharko dituzte. zenbateko hori eta gure elkargoan sartzen direnentzat (Arabako edo Gipuzkoako kide izanik) ezarritakoa berdina dira, Legelarien Euskal Kontseiluak erabakitakoari jarraituz.

Praktika Juridikoko Eskola:

GASTUAK:

Praktika Juridikoko Eskola gastu gune nabarmena da; hori dela eta, arreta berezia eskainiko diogu. Dakizuenez, Praktika Juridikoko Eskolaren jarduera ez dagokie

bakarrik Eskolako ikasleei, gaur egun **Etengabeko Prestakuntza** deitzen dugun horretara hedatzen da eta; horren harira, elkargokide guztiei begira jardunaldiak eta birziklatze-ikastaroak antolatzen dira. Esan behar da lan hori elkargokideek asko estimatzen dutela: urte osoan pertsona askok ematen dute izena antolatzen diren mota desberdinetako jardueretan.

Ekitaldi honetarako gastu horren aurreikuspena 680.580 eurokoa da, iazkoa baino txikiagoa, beraz. Kontuan hartu behar da lehen ikasle gehiago zeudela, Lanbidean Sartzeko Lege berria indarrean jartzearen ondorioz, izan ere, Eskolatik pasatzea nahitaezkoa zen. Gainera, aurreko urteetan eskaintzen genuen abokatutzaren hastapenei buruzko ikastaroa (CIA) desagertu da, izan ere, ikastaro horretako ikasleak, zuzenbideko lizentziadunak, desagertu dira.

Ekitaldi honetan ahalegin berezia egongo du "Pedro Ibarreche" Praktika Juridikoko Eskolak. Batetik, Abokatutzan Sartzeko Masterra dugu, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearekin batera antolatzen dena. Bestetik, Euskal Herriko Unibertsitateak duen Abokatutzan Sartzeko Masterraren ikasleak daude, izan ere, horientzako praktikak antolatzen ditugu. Gainera, elkargokideentzako ikastaro eta mintegiak antolatzen dira geratu gabe.

Aurten gastu berria aurreikusi dugu. Hain zuzen, tutore bat kontratatu behar dugu. Lanpostu horretarako deialdia zabaldu genuen; bere zereginak hauek izango dira: Eskolan kontrol eta antolaketa lanetan laguntzea, batez ere, elkargokideentzat interesgarriak diren jardunaldiak eta ikastaroak antolatzeko.

Halaber, Eskolaren 30. urteurrena ospatzeko partida sortu da.

Beraz, jarduera asko eta asko egin behar ditugu eta horrek eragina du aurrekontuetan, bai gastuen atalean, baita sarreretan ere, jarraian adierazten den moduan.

SARRERAK:

Antolatutako ikastaro eta jardunaldietara joango diren ikasleek (Abokatutzan Sartzeko Masterraren ikasleak eta zuzenbideko lizentziadunak) zein bertaratuek (legelariak gehienbat) urte osoan 875.000 € inguruko sarrerak eragingo dituztela aurreikusi da.

Ofizioko Txanda eta Laguntza:

GASTUAK:

Ezin dugu aipatu gabe utzi, urtero bezala, ofizioko txanda eta laguntza, bertan abokatutzaren eskuetan dagoen lan garrantzitsu bat islatzen da eta. Gainera, Bazkuneko langileek ordu asko ematen dituzte arlo horretan eta Bazkuneko aurrekontu osoaren zati handi bat ere gai horri dagokio.

Aurreko aurrekontuetan egin zen moduan, kopuru garrantzitsua eskaini zaie, *622.300 euro*, Bazkunak zerbitzu horien —Doako Laguntza Juridikoa eta Ofizioko Txanda— azpiegiturari eusteko dituen gastuei aurre egiteko.

Partida honetan, zerbitzu hauen funtzionamenduak Bazkunari eragin ahal dizkion gastuak sartu dira: Ofizioko Txanda guztiak, Atxilotuari Laguntzeko modu desberdinak eta Orientazio Juridikorako Zerbitzua. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza emateko Zerbitzuaren azpiegitura-gastuak gehitu dira —diru asko da baina Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza bat ematen du—, baita Atzerritarren Zerbitzu Bereziaren gastuak (Atzerritarrentzako Arreta Juridikoko Zerbitzua) —kasu honetan ere Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat jasotzen dugu—.

SARRERAK:

Ikus daitekeenez, ekitaldi honetan eta aurrekoetan ezin izan da partida honetan zero saldoa jarri. Izan ere, Doako Justiziaren Dekretu berria oinarri hartuta diru-laguntzetan izaten ditugun sarrera aurreikuspenekin ezin zaie erabat aurre egin zerbitzu horiek mantentzeko beharrezkoak diren gastuei. Gastuari aurre egiteko diru-laguntzengatik *579.500 €* inguru jasoko direla aurreikusi da, eta kopuru hori aurrekontuan jaso da. Hala ere, Bazkunak Eusko Jaurlaritzari erreklamatzeko jarraituko du, ekitaldi ekonomiko honetan diru-laguntza handitu dadin jarduera horrek Bazkunean eragiten dituen gastuei aurre egiteko, bestela jarduera hori defizitarioa baita guretzat.

Kultura Batzordea:

Batzorde horren lana sendotu dela azpimarratu nahi dugu. Ekimen horrek ez du diru askorik (*17.900 €*) baina Bazkunari bizitasuna emanez jarraitzea espero dugu; horretarako, guri eta gizarte osoari zabalduko ekitaldiak antolatzen jarraituko dute, Abokatuen Bazkuneko eraikina eta gizataldea bera Bizkaiko gizarteari hurbilduz. Urtean zehar asko eta asko dira antolatutako ekitaldiak, denak kalitate handikoak eta bertaratutakoen gustukoak: musika kontzertuak, erakusketak, etab. Azkenik, esan behar da Kultura Batzordeak Bazkunaren aldizkarian atal finko bat duela.

Informazio agerkaria:

Informazio Agerkaria izena hartzen du Bazkuneko aldizkariak aspalditik. Urtean 10 ale ateratzen dira. Bazkuneko kideen bulegoetara eta eremu juridikoarekin lotutako hainbat erakundetara heltzen da. Iazkoa gastua igo da: *150.040 €*. aurreikusi dira.

Azken urteotan publizitatetik eratorritako sarrerak nabarmen txikitu dira. Krisialdia dela eta, iragarkiak gutxitu dira; horrenbestez, finantziarioa jaitsi da. Hala ere, aurrekontuetan *60.000 €* agertzen dira sarrera gisa.

FBE - ANB:

Gastu gune hori kendu eta Nazioarteko Harremanen Batzordean sartu dugu, izan ere, eremu bereko kontuak dira.

Argitalpenak:

Paperezko lan juridikoen doako banaketak izugarritzko arrakasta izaten du gure artean. Guztiontzako interesgarriak diren lan horiek Bazkunak merke eskuratu eta banatu ditu. Hori dela eta, datorren urteari begira partida maila altu horretan mantentzea erabaki dugu: *40.000 €* izango dira, halako lanak erosi edo argitaratzeko.

Ekimen korporatiboak:

Bazkunaren inguruko ekimenak izeneko partida honetan, *78.200 €*-ko aurrekontuarekin, Bazkunak antolatutako jarduerak egitea sartu da, batez ere urteko bazkaria, eskelak eta hildako lankideen omenezko urteko meza. Bazkari horren bidez, Bazkunean 40 urtetik gora daramaten legelariak omentzen dira.

Askotariko zerbitzuen barruan sartzan dira Bazkuntik abokatutzarekin lotutako erakundeei edo Gobernu Batzordearen ustez gure partaidetza merezi duten erakundeei egindako ekarpena.

Partida honetako sarrera da urteko bazkarira doazenek ordainduko duten diru-kopurua, gutxi gorabehera *17.000 €*.

Arbitraje Auzitegia:

Duela urte batzuk ezarri zen zerbitzu orokorretatik independentea den jarduera moduan. Modu horretan, horri egozten zaizkio jardueratik zuzenean eratorritako gastuak eta sarrerak.

Ekitaldi honetan, jarduera horretarako *43.250 €*-ko aurrekontua ezarri da, eta kopuru bera Bazkunerako sarrera moduan, emango diren laudoetan ziurrenik parte hartuko duten auzilariek Bazkunari kopuru hori ordainduko diote eta.

Nazioarteko lankidetzak:

Partida honetan sartzan dira Bazkunak Hirugarren Munduko edo garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzera bideratzen duen kopurua, Bazkuneko Nazioarteko Lankidetzako Batzordearen bidez, gure Batzar Nagusiak ezarri eta bere gain hartutako % 1aren arabera. Aurtengo zenbatekoa *32.500 €* izango da.

Partida hau gutxitu egin da, Bazkuneko aurrekontuak bezalaxe.

Ikerlan taldeak:

Aurrekontuan beste batzordeen eta azterlan taldeen ohiko partidak bere horretan mantendu egin dira. Talde horiek guztiek Bazkunari bizitasuna ematen diote eta elkargokideei aukera ematen die hainbat eta hainbat ekimenetan parte hartzeko. Taldeak eta horien gaiak honako hauek dira: Familia zuzenbidea, Foru zuzenbidea, Teknologia berriak, Bitartekaritza, Ingurumena, Kontsumo zuzenbidea, Lan zuzenbidea, Nagusien zuzenbidea, Jabetza Intelektualari buruzko zuzenbidea eta Lankidetzaren zuzenbidea; orain dela gutxi, animalien zuzenbideari buruzko taldea sortu da.

Memoria honekin batera, Bazkunak urte osoan kobratuko dituen kuoten azalpen-taula gehitu da, eta balizko inguruabar guztiak zehaztu dira, elkargokide bakoitzaren egoeraren arabera.

Aipatutako arrazoi guztiengatik, aurrekontuaren zenbateko osoak aurreko urtekoarekin alderatuta **% 4,23ko murrizketa** izan du.

Hiruhileko ordainagiriak

Gogoratu nahi dizuegu Bazkunak hiru hilerik behin igorritako ordainagiritan beste kontzeptu batzuk agertzen direla. Kontzeptu horiek ez dira elkargoko aurrekontuaren atalak baina kudeatu behar ditugu; zehatz esanda, hauek dira:

- **Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren kuotak** (2016ko zenbatekoak mantentzen dira)

- Jarduneko kide egoiliarak, jardunean ez dauden egoiliarak eta egoitza-elkargarik gabeko kideak: 39,13 €.

- **Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren kuotak** (iazkoak bainoa txikiagoak egoiliarrentzako):

- Jarduneko kide egoiliarak: 26,00 €

- Jardunean ez dauden egoiliarak: 14,30 €

Dena den, aurten zenbateko horiek elkargokideei ez kobratzea erabaki dugu, azken urteetan superabit izan eta Euskal Kontseiluak Bazkunari diru batzuk eman dizkiolako.

- **Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako Asegurua:** Bazkunak jarduneko kide egoiliarrentzat kontratatzen du; iazko kopurua mantentzen da: *218,17 €*. Bigarren eta laugarren hiruhilekoko ordainagiritan agertzen da. Dakizuenez, Erantzukizun Zibileko Aseguruak 600.000 €-ko estaldura eskaintzen du eta 600 €-ko frankizia du.

Posible da norberak estaldurak zabaltzea; halako kasuetan aipatutako frankizia desagertu egiten da.

- **LEI aseguru**a (Lanbide Ezintasun Iraunkorraren ondoriozko prestazioa) borondatezkoa da jardunean dauden egoiliarrentzat; 2017an 156 € izango dira; lehengo eta hirugarren hiruhilekoko ordainagiritan agertzen da. Iazko zenbatekoa handitu da, izan ere, horixe da merkatuak eta ezbehar-tasak duten joera.

Azkenik, zuen lankidetzaz eskertu nahi dugu. Halaber, aurrekontu hau onesteko egingo den Batzar Nagusira bertaratuko zaretela espero dugu.

Bilbon, 2016ko abenduaren 9an

GOBERNU BATZORDEA